



ERRIBERIKO

ANTZERKI

klasikoaren

JAIALDIA

2016ko uztailak 22 · abuztuak 6

Laguntzen du:



AYUNTAMIENTO DE OLITE
ERRIBERRIKO UDALA

Antolatzen du:

FUNDACIÓN
BALUARTE
FUNDAZIOA

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

ARGIBIDEAK

SARREREN SALMENTA

ON LINE SALTZEA:

(komisioa: 0,95 € sarrera bakoitzeko)

Ekainaren 22tik aurrera,
www.culturana Navarra.es eta www.
baluarte.com webguneen bidez.

TXARTELDEGIAN SALTZEA:

(komisiorik gabeko salmenta)

Baluarteko txarteldegia

- Ekainaren 30etik uztailearen 5era, ohiko ordutegian, 11:00-14:00 eta 17:00-20:00, astelehenetik larunbatera.
- Uztailearen 19a eta abuztuaren 6a artean, Baluarteko atartearen, 11:00etatik 14:00etara, astelehenetik larunbatera.

Erriberriko txarteldegia

Uztailearen 19tik aurrera eta jaialdia egin bitartean, Ardoaren Museoan (Teobaldoren plaza, 4). Uztailearen 19tik aurrera eta jaialdia egin bitartean.
Tel. 948 741 703.

SARREREN PREZIOAK

ASTEBURUKOAK

15 € *on line*, 18 € txarteldegian.

Gazte Txartela: 10 € *on line*/txarteldegian.

FAMILIARRA ASTEBURUKOA

(EL QUIJOTE EN LA PATERA)

8 € *on line*, 10 € txarteldegian.

Gazte Txartela / Txartelik gabeko adingabeak: 5 € *on line*/txarteldegian.

BE2TE KLA2IKO BATZUK

10 € *on line*, 12 € txarteldegian.

Gazte Txartela: 6 € *on line*/txarteldegian.

MIKROKLASIKOEN SAIOA

5 € *on line*, 7 € txarteldegian.

Gazte Txartela: 5 € *on line*/txarteldegian.

ABONUAK

On line eta txarteldegian erosi ahal izango dira, uztailearen 15a arte.

La Cavarako abonua osoa

(ASTEBURUKO 6 antzezlan –ez du barnean hartzen familiarra– eta BE2TE KLA2IKO BATZUK 3 antzezlan): 90 € ekainaren 30a arte, 110 € uztailearen 1etik aurrera. **Gazte Txartela:** 60 € *on line*/txarteldegian.

Asteburuko 6 antzezlan

ikusteko abonua (ez du barnean hartzen familiarra): 70 € ekainaren 30a arte, 85 € uztailearen 1etik aurrera.

Gazte Txartela: 50 € *on line*/txarteldegian.

BE2TE KLA2IKO BATZUETAKO

3 antzezlan ikusteko abonua

LA CAVA 25 € ekainaren 30a arte, 30 € uztailearen 1etik aurrera. **Gazte Txartela:** 15 € *on line*/txarteldegian.

**cultura
navarra.es**



Cultura Gobierno de Navarra



@cultura_na

Tel. 012 / 948 2170 12

OLITE APLIKAZIOA

Jaialdiaren agenda, albisteak eta turismo informazioa OLITE aplikazioan. *Dohainik behera kargatu ahal da iTunesen eta Appstoren.*



INFORMAZIO GEHIGARRIA

Erriberriko Antzerki Klasikoko Jaialdian, emanaldi bakoitzerako 6 leku daude gordeta mugikortasun murriztua duten pertsonentzat. Sarrera horiek erosi nahi dituzten ikus-entzuleek Baluarteko eta Erriberriko txarteldegietan edo 948 066 060 telefono zenbakiaren bidez egin beharko dute (erosketa bakoitzean, gehienez ere, 2 sarrera erosi ahal izango dira). Hartara, Antzerki Klasikoko Jaialdiak ezin die bermatu beren beharretarako kokaleku egokia izatea, gordetako leku horietarako ez den sarrera erosten duten mugikortasun murriztuko pertsonen. Edonola ere, antolatzaileak saiaturako dira ikus-entzule horiek kokatzen esparruak eskaintzen dituen aukeren barnean.

Uda iristen denean, **antzerki klasikoa** itzultzen da Erriberrira, aurten hamazazpigarren edizioa izango duen jaialdi batean, eta bat eginez William **Shakespeare** eta Miguel **Cervantes** hil zireneko **400.** urteurrenarekin. Horren oroitzapena egiteko, *The Complete Walk* ikusteko aukera izango da: antzezlanetako istorioak gertatzen diren toki berberetan filmatu diren 37 film laburren proiektua. Film labur horien artean, *Trabajos de amor perdidos* emango da, Erriberriko Errege Jauregian filmatutakoa.

Eta, hain zuzen, **Cervantes** eta **Shakespeare** dira antolatatu diren antzezlan askoren oinarria. Izan ere, gure idazle unibertsalena presente egongo da *Los chismes del Quijote y su amigote; Cervantina; Don Quijote* eta *El Quijote en la patera* antzezlanetan. Bere aldetik, Shakespeare izango dute gogoan, besteak beste, *Macbeth, ya somos el olvido que seremos, Mica Shakespeare, Mucho ruido y pocas nueces, Ricardo III, Trabajos de amor perdidos* eta *Mucho ruido y pocas nueces Sound Party* lanetan. Edizio honetan, gainera, aktore handiak ariko dira, besteak beste, **Concha Velasco** –*Joana erregina* hezurmamituko du– eta **Nuria González** –*Las harpías en Madrid* antzezlanean–. Programatu diren beste antzezlan batzuk *El triunfo del amor, Náufragos* eta *Oymyakon* dira. Eta hurbil-en dugun arte-ingurunea babesteko konpromisoari eutsita, **Mikroklasikoak** zikloa hartuko du jaialdiak, **Nafarroako sei talde profesionalen** antzezlan laburrak ikusteko.

Ohiko programazioaz gain, Erriberriko Jaialdiak zenbait berrikuntza aurkeztuko ditu, **hizkuntza eszeniko berriei, sorkuntzari** eta **ikerketari** tokia uzteko apustuaren barnean. Hartara, **lan-egoitza** bat egingo da eta bertan Nafarroako talde batek arte-proiektu bat garatuko du. **Yayo Cáceres-ek tailer** bat emango du, aktoreen lanari buruz ikuspegi **multidisziplinario** batetik. Asmoa da hitzordu hau elikatzen duen pizgarria biziberritzea, antzerki klasikoa, garai batekoa berriarekin ezkon daitekeen uste sendoa izanda. Kontrara, antzerkiak **urratzea** eta **arriskua** dakar. Hala ulertzen du jaialdi honek eta hala irudikatzen du edizio hau iragartzen duen kartelak: erdi emakume erdi aker den izaki bat protagonista du, antzaldatu eta Erriberriko ikus-entzule misterioitsu bihurtuko dena.

LA CAVA

ASTEBURUKO KLASIKOAK
UZTAILAK 23 LR. / 22:30

REINA JUANA

Ernesto Caballero

GRUPO MARQUINA-SIEMPRE TEATRO
Zuzendaritza: **Gerardo Vera**

ANTZERKI FAMILIARRA
UZTAILAK 24 IG. / 21:30

DON QUIJOTE EN LA PATERA

Alfonso Zurro

TEATRO CLÁSICO DE SEVILLA
Zuzendaritza: **Antonio Campos**

ASTEBURUKO KLASIKOAK
UZTAILAK 25 AL. / 22:30

TRIUNFO DE AMOR

Juan del Enzinaren testuetatik
eta musiketatik abiatuta

NAO D'AMORES
Zuzendaritza: **Ana Zamora**

BE2TE KLAZIKO BATZUK
UZTAILAK 27 AZ. / 22:00

OYMYAKON

CÍA VIVISECCIONADOS
Dramaturgia eta zuzendaritza:
José Andrés López

ASTEBURUKO KLASIKOAK
UZTAILAK 29 OR. / 22:30

RICARDO III

William Shakespeare
Bertsioa: **Yolanda Pallín**

NOVIEMBRE TEATRO
Zuzendaritza: **Eduardo Vasco**

ASTEBURUKO KLASIKOAK
UZTAILAK 30 LR. / 22:30

CERVANTINA

Bertsioak eta jostetak
Cervantesen testuen gainean
CNTC / RON LALÁ
Zuzendaritza: **Yayo Cáceres**

BE2TE KLAZIKO BATZUK
ABUZTUAK 1 AL. / 22:00

MACBETH

YA SOMOS EL OLVIDO QUE SEREMOS
W. Shakespeareren *Macbeth*
oinarri hartuta

ALAUDA TEATRO
Zuzendaritza eta bertsioa:
Rafael Benito

BE2TE KLAZIKO BATZUK
ABUZTUAK 3 AZ. / 22:00

RESTOS / FEDRA

Raúl Hernández Garrido

TNT - CENTRO INTERNACIONAL
DE INVESTIGACIÓN TEATRAL
Zuzendaritza eta egokitzapena:
Juana Casado

ASTEBURUKO KLASIKOAK
ABUZTUAK 5 OR. / 22:30

LAS HARPÍAS EN MADRID

Fernando J. López,
Castillo Solórzanoren
eleberritik abiatuta

CÍA PÉREZ Y GOLDSTEIN
Zuzendaritza: **Quino Falero**

ASTEBURUKO KLASIKOAK
ABUZTUAK 6 LR. / 22:30

TRABAJOS DE AMOR PERDIDOS

William Shakespeare
Egokitzapena: **José Padilla**

FUNDACIÓN SIGLO DE ORO
ETA SHAKESPEARE'S GLOBE THEATRE
Zuzendaritza: **Tim Hoare -
Rodrigo Arribas**

BESTE AGERTOKI BATZUK

UZTAILAK 22 OR. / 19:00 - 00:00
TEOBALDOEN PLAZA

THE COMPLETE WALK Shakespeare lives in 2016

BRITISH COUNCIL ETA
SHAKESPEARE'S GLOBE

ANTZERKI FAMILIARRA ETA KALEKOA
UZTAILAK 22 OR. / 20:00
ARMEN PATIOA. ERREGE JAUREGIA

LOS CHISMES DE DON QUIJOTE Y SU AMIGOTE TOIFERENCIA

ANTZERKI FAMILIARRA ETA KALEKOA
UZTAILAK 22 OR. / 21:00
KARLOS III.AREN PLAZA

NAÚFRAGOS

LA INDUSTRIAL TEATRERA
Zuzendaritza: **Jordi Purτί eta
Mamen Olías**

BE2TE KLAZIKO BATZUK
ERREGE JAUREGIA. ARKUEN ARETOA
UZTAILAK 23 LR. ETA 24 IG. /
19:30 ETA 21:00

MUCH ADO ABOUT NOTHING

(Trumoi asko eta euri gutxi)
DAVID ESPINOSA / EL LOCAL E.C.

ANTZERKI FAMILIARRA ETA KALEKOA
TEOBALDOEN PLAZA
UZTAILAK 29 OR. ETA 30 LR. /

18:00 - 21:00
(8'-ko emanaldiak)

MICRO SHAKESPEARE

LAITRUM TEATRE, KOPRODUKZIOAN ETA
THE NATIONAL THEATRE REKIN
Bertsioa eta zuzendaritza:
Toti Toronell
Jatorrizko ideia: **Laitrum /
Angus MacKechnie**

ANTZERKI FAMILIARRA ETA KALEKOA
 ABUZTUAK 5 OR. / 21:00
 KARLOS III.AREN PLAZA

MUCHO RUIDO Y POCAS NUECES SOUND PARTY

ESENCIA PRODUCCIONES, LAGARTO-
 LAGARTO & TORNABÍS PRODUCCIONES
 Egokitzapena eta zuzendaritza:
 Alfonso Palomares

ANTZERKI FAMILIARRA ETA KALEKOA
 ABUZTUAK 6 IG. / 20:00
 KARLOS III.AREN PLAZA

DON QUIJOTE

Egokitzapena: Carlo Boso,
 David Sanz eta Eva del Campo

TEATRO DEL FINIKITO
 Zuzendaritza: Carlo Boso

BESTE JARDUERA BATZUK

INTERPRETazio tailer integrala
 UZTAILAK 23 LR. ETA 24 IG. /
 10:00ETATIK 14:00ETARA ETA
 16:00ETATIK 18:00ETARA
 ERRIBERRIKO IKASTETXE PUBLIKOAK

DEPORTEATRO

Yayo Cáceresekin (Ron Lalá)

UZTAILAREN 22TIK ABUZTUAREN 6RA
 ERRIBERRIKO IKASTETXE PUBLIKOAK

EGOITZA-LABORATEGIA

MIKROKLASIKOAK

ERREGE JAUREGIA:

OFF ELIA.
 LA CLÁSICA COMEDIA
 WWW.PRÍNCIPE.VIRTUAL
 PLANTO DEL SOLDADO 1º

UZTAILAK 25 / 20:00
 UZTAILAK 29 / 20:00
 UZTAILAK 30 / 13:00
 ABUZTUAK 6 / 20:00

JUICIO AL MERCADER
 NO ES TAN FEO...
 VISTO DE CERCA
 RINCONETE Y CORTADILLA

UZTAILAK 30 / 20:00
 UZTAILAK 31 / 13:00
 ABUZTUAK 5 / 20:00
 ABUZTUAK 6 / 13:00



ERRIBERRIKO
 ANTZERKI
klasikoaren
 JAIALDIA

2016ko uztailek 22 - abuztuak 6

ASTEBURUKO
KLASIKOAK

REINA JUANA

Ernesto Caballero

GRUPO MARQUINA-SIEMPRE TEATRO

Zuzendaritza: Gerardo Vera



UZTAILAK 23 LR. / LA CAVA / 22:30

Gaztelako Joana. Shakespearek haren berri izan balu, zalantzarik gabe, haren tragedia handietako baten protagonista izango zen. Emakumea, izan zituen kontraesan handiek, errebeldiak, nortasun handiak eta Habsburgoko Feliperekin ezkondata egotea izan zen maitasunaren eta heriotzaren arteko paseo horretan gauzatu zen afektibitate desoreka izugarriki emozionalki suntsitu zuten erregina. Herritarren artean ibili izan den istorioa eta morbo gaizbera, pertsonaia honen inguruan hainbat urtean bildutakoa, antzezlanetarako, telebistako sailetarako eta filmetarako inspirazio iturri izan da. Baina nik beti eman dut faltan sakonago tratatzea eta modu bidezkoagoan halako pertsonaia berezi eta ohiz kanpokoa.

Garaikidetasun handia duten gogoeten bidez, erlijioaren intolerantziak, politikaren ustelkeriak eta monarkia absolutista baten handinahi neurririk gabeak –haren oihartzunak, zoritxarrez, gure egun hauetan entzuten dira– markatutako garai bati buruzko galdera handi guztiak planteatzen ditu Ernesto Caballerok. Ezer ez zen posible izango arraza oneko bi ekoizleren, Juango Seoane eta Alejandro Colubiren, pasioa gabe, beren eskarmentua proiektu honen zerbitzura jarri gabe. Eta, jakina, antzerkigintzako izen handi bat gabe, Concha Velasco, inbaditzen gaituen gogoberotasun honen azken arrazoia baita. Velasco da bere talentuarekin, gizatasunarekin, antzerkigintza onenarekiko gogokidetasunarekin, buruargitasunarekin eta erabateko karrarekin lehenbiziko egunetik bere neurrira eginda dagoen pertsonaia baten alderik ilunenak eta mingarrienak argitzen dituen argia.

Gerardo Vera

ANTZEZLEA

Concha Velasco

TALDE ARTISTIKOA

Eszenografia: Alejandro Andújar eta Gerardo Vera / **Argiak:** Juanjo Llorens / **Jantziak** Alejandro Andújar / **Bideoeszena:** Álvaro Luna / **Soinu diseinua:** Raúl Bustillo / **Argazkiak:** Sergio Parra / **Zuzendari-laguntzailea:** José Luis Collado / **Eszenografia laguntzailea:** Laura Ordás Amor / **Eszenografia erakitzea:** Mambo & Sfumato / **Jantziak egitea:** María Calderón eta Ángel Domingo **Kudeatzaileak:** Fran Martí / **Joskintza:** Rosa Castellano / **Argiketari lanak:** Mario Díaz / **Makineria:** Marcos Carazo / **Soinua:** Jonay Ferreira / **Ekoizpen exekutiboa:** Alberto Closas / **Sustatzailea:** Juanjo Seoane / **Ekoizpena:** Grupo Marquina – Siempre teatro / **Eskerrak:** Luis Delgado eta Miriam Cano

www.teatrosgrupomarquina.es/
#ireina-juana/s0nq6

Iraupena: 90'

ANTZEZLEAK

Sergio Adillo, Javier Carramiñana, Eva Jornet, Rodrigo Muñoz, Irene Serrano, Isabel Zamora

TALDE ARTISTIKOA

Dramaturgia eta

zuzendaritza: Ana Zamora

/ Moldaketak eta musika

zuzendaritza: Alicia Lázaro /

Bertsoetarako aholkularia:

Vicente Fuentes / **Koreografia:**

Javier García Ávila

Jantziak: Deborah Macías /

Espazio eszenikoa: David

Faraco / **Argiak:** Miguel Ángel

Camacho eta Pedro Yagüe /

ekoizpen exekutiboa: Germán

H. Solís / **ekoizpena eta**

banaketa: Nao d'amores

www.naodamores.com

Iraupena: 70'

UZTAILAK 25 AL. / LA CAVA / 22:30

Iritsi da unea. Nao d'amores taldeak, duela hamabost urtetik barroko aurreko antzezlaritza ikertzen eta zabaltzen espezialista den talde artistikoak, azkenean, aurre egingo dio Juan del Enzinari. Juan del Enzina, hain zuzen, Espainiako Pizkundeko egile dramatiko handia izan zen, ospetsuena, gorteko antzezlaritzaren arauak urratu eta ondorengo antzerkigintza osoa baldintzatu zuena. Espainiako antzezlaritzaren aitalehentzat hartu izan denaren hainbat testu dramatiko eta musikatatik abiatuta eraikitako ikuskizuna da *Triunfo de amor*. Gaztaroko izen bereko poemaren ideietatik abiatzen da dramaturgia, bere sorkuntzaren bigarren etapako une handiak egiteko, ukitu profano eta humanistako italiar eraginak kutsatutako egloga handiak hartzen dituena. Ikuskizunak, nolabait, Erdi Aroko tradizioko maitasun eztabaidatik Pizkundeko literaturako gai handia izango denera igarotzea islatzen du: maitasunaren boterea.

Betidanik gure lana ezaugarritu duten konpromiso artistikotik ekin diogu proiektu berri honi, izaki eszeniko hauetan berraurkitzea dakarren antzezlaritza bat berpiztuta; artzainaren moztorroaren pean, askatasun galera gobernatzen gaituen maitasun horren boterearen aurrean liluratuta bizi duten izaki eszenikoetan. Zenbaitetan, hondamendi moduan suntsitzen duen maitasuna da, baina era berean hobe egin gaitzakeena.

Ana Zamora

TRIUNFO DE AMOR

Juan del Enzinaren
testuetatik eta musiketarik abiatuta

NAO D'AMORES
Zuzendaritza: Ana Zamora




RICARDO III

William Shakespeare

Bertsioa: Yolanda Pallín

NOVIEMBRE TEATRO

Zuzendaritza: Eduardo Vasco



UZTAILAK 29 OR. / LA CAVA / 22:30

Shakespeare mugarik eta dogmarik ezagutzen ez duen antzerkigilea da, eta bere lehen konposizioetatik literaturako erreferentziak eta eszenikoak baditu ere, agertoki gainean berri, berezi eta ohi ez bezalako moduan ageri da beti. Antzezaritzaren beraren funtsa berritzen du, Taliaren Artea maite dugunon zorionerako.

Antzezan honetan Rikardo aurkezten zaigu. Moralik gabeko gizona da, itxurakeriaren maisua, boterea lortzeko helburu bakar bakarrarekin odol ekaitzak sorrarazteko gai den izakia. Pertsonaia gisa duen berezitasunak aukera ematen dio mozorroa janzteko erretorikak lagunduta eta benetan dena ezkutatze gainerakoei, nahiz eta bere handinahian neurritik kanpo nabarmentzen den, lotsarik gabe bere nahietan. Eta aurrez aurre ikuslea harriturik dago, piztutako izugarrikeria ordainduko duen erorketa baten lekuko izateko unearen zain, txunditurik.

Gure jarrera ezaguna da. Gure ustez, ikus-entzuleei klasikoak eskaintzea erantzukizuna da, baina, aldi berean, gozamen artistikorako kontua da. Shakespeare jakintsuentzako egiletzat hartzea zentzugabekeria kulturala iruditzen zaigu. Bardo ingelesak, Urrezko Mendeko gure egileek bezala, antzezanak idatzi zituen istorioak kontatzeko jende xeheari, entretenitzeko, haien espiritua aberastu eta, zenbaitetan, gogoeta bat pizteko. Gure iritziz, antzerkiak, kalitateak eta bertuteak galdu gabe, eskuragarria izan behar du, eta horretarako lan egiten dugu.

Eduardo Vasco

ANTZEZLEAK

Arturo Querejeta, Charo Amador, Fernando Sendino, Isabel Rodes, Rafael Ortiz, Cristina Adua, Toni Agustí, José Luis Massó, José Vicente Ramos, Jorge Bedoya, Guillermo Serrano

TALDE ARTISTIKOA

Zuzendari-laguntzailea: Fran

Guinot eta Daniel Santos /

Argazkiak: Chicho / **Hautaketa eta**

musika egokitzapena: Eduardo

Vasco / **Argiak:** Miguel Ángel

Camacho / **Eszenografia:** Carolina

González / **Jantziak:** Lorenzo

Caprile / **Ekoizpena:** Miguel Ángel

Alcántara

www.noviembreteatro.es/

estrenos/ricardo-iii/

Iraupena: 100'

ANTZEZLEAK

Juan Cañas, Miguel Magdalena,
Álvaro Tato, Daniel Rovalher, Íñigo
Echevarría

TALDE ARTISTIKOA

Literatura zuzendaritza: Álvaro

Tato / **Musika zuzendaritza:**

Miguel Magdalena / **Jantziak:**

Tatiana de Sarabia / **Eszenografia**

eta atrezzoak: Carolina González

/ **Argiak:** Miguel A. Camacho

/ **Soinua:** Eduardo Gandulfo /

Zuzendaritza-laguntzailea eta

ordezkapenak: Fran García /

Bertsioa, musika konposizioak

eta moldaketak: Ron Lalá /

Eszenografia gauzatzea: Mambo

Decorados eta Sfumato Pintura

Escénica / **Atrezzoak egitea:**

Utilería y Atrezzo, S. L. / **Jantziak**

egitea: Maribel Rodríguez, María

Calderón eta Artmakerstudio

/ **Argietako teknikaria:** Javier

Bernat / **Laguntzaile teknikoa**

eta kudeatzaileak: Aitor Presa

/ **Banaketa:** Emilia Yagüe

Producciones / **Ekoizpen**

exekutiboa: Martín Vaamonde /

Koprodukzioa: CNTC / Ron Lalá

www.emilia-yague-espectaculos.

blogspot.com.es/p/cervantina.html

Iraupena: 90'

UZTAILAK 30 LR. / LA CAVA / 22:30

Cervantina birusaren agerraldi bat izan da jaialdi honetan. Sintomak badituzu (barre adimenduneko eraso, buruargitasun ludikoa, ironia akutua eta askatasunaren defentsa), litekeena da kutsatuta egotea. Esan behar dizugu, tamalez, ez dagoela txertorik. Horrenbestez, jar zaitez eroso Cervantesen mundura bidaiatzeko. Cervantina gure letretako egile handienaren sormenezko unibertsora Ron Lalá taldeak egin duen hurbilketa berri bat da. Testu askotarikoak, bertsoak, bertsioak eta jostetak, literatura unibertsaleko jeinu eztaba daezinetako baten inguruan. Pieza laburren festa bat, agertoki gainean biltzen ditu eleberri eredugarri eta interludio batzuen egokitzapen "ronlalerok" eta bai hain ezagunak ez diren piezen zatiak ere, hala nola *Persiles*, *La Galatea* eta *El Viaje del Parnaso*. Abiapuntuak dira gure garaikide erradikalenaren funtsaren bilaketan.

Omenaldia eta topaketa Kixoteren egilearen arte argi, ludiko, barre-egingarri eta sakonki humanoarekin. Besteak beste, lan hori berraurkitzea presakoa da. Cervantes onenaren ospakizuna, betierekoa eta hurbilekoa, Ron Lalá taldearen ezaugarri ezin nahasizkoaren zapoarekin.

En un lugar del Quijote lanak nazioartean izan zuen arrakasta biribilaren ondotik, taldeak pauso bat gehiago eman du Cervantesen literatura mundua esploratzean, bere hizkuntza eszenikoaren tresnen bitartez: umorea, poesia, erritmo zoroa, zuzeneko musika... Elkarrizketa irekia eta konplexurik gabea, Miguel de Cervantesen barre zentzudun, sentibera eta sakonaz kutsatzeko ikus-entzuleak.

Ron Lalá

CERVANTINA

Bertsioak eta jostetak **Cervantesen** testuen gainean

CNTC / RON LALÁ

Zuzendaritza: Yayo Cáceres



LAS HARPÍAS EN MADRID

Fernando J. López,
Castillo Solórzanoren eleberritik abiatuta

CÍA PÉREZ Y GOLDSTEIN
Zuzendaritza: Quino Falero



ABUZTUAK 5 OR. / LA CAVA / 22:30

Ama bat, Teodora, eta bi alabak, Luisa eta Feliciano, dira Castillo Solórzanoren eleberrian libre aski ideia hartutako komedia honi izena ematen dioten emazitalak. Lehendik agertokietara inoiz iritsiak ez ziren hiru emakume, beren engainuen eta maltzurkerien bidez Espainia barrokoan aurrera egiten saiatuko direnak. Pieza hau idazteko asmoa proposamen kritiko eta feminista moduan sortu zen, eta bertan umorearen eta kontakizungintza pikareskoaren kodearekin jokatzeko da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gai larriari heltzeko. Egoera jakin bat hartzen da abiapuntu, xvii. mendeko Madril, eta bertan bilatzen dira denboragabe bihurtzen duten ezaugarriak –eta aski da gure ingurura begiratzea–.

Baina antzezlan hau, gainera, Urrezko Mendeko literaturari egindako omenaldi pozgarria da eta, bereziki, pikaroei, Celestinaren tradizioaren oinordeko eta gehiegitan bigarren maila bidegabe batera kondenatutakoei. Zenbait autoreri, besteak beste, Garcilaso, Cervantes, María de Zayas eta Calderóni, egindako keinuen artean, komedia honek gonbidatzen gaitu xxi. mendeko gure ikuspegitik antzezlaritza barrokoan oso ohikoak diren gaitara begiratzera, esate baterako, ohorera, maitasunera edo erabakimenera.

Las harpías en Madrid antzezlanak, moztuaren eta katramilen pean, ikus-entzuleen barrea eragin nahi du, baina, era berean haien gogoeta piztu nahi du eta errealitatearen gaineko begirada kritiko bat eskaini. Orduan izan ginenekoen gainean... Eta orain garenon gainean.

Fernando J. López

ANTZEZLEAK

Nuria González, Marta Aledo,
Natalia Hernández,
Juanan Lumbreras, Paco Déniz

TALDE ARTISTIKOA

Eszenografia: Mónica Boromello
/ Jantziak: Lupe Valero / **Argien diseinua:** Toño M. Camacho / **Soinuen espazioa:** Ana Villa eta Juanjo Valmorisco / **Ekoizpena:** Chácena, Flower Power, De Gira / **Diseinu grafikoa eta argazkiak:** Javier Naval / **Ekoizpen zuzendaritza:** Nadia Corral / **Zuzendaritza- eta ekoizpen-laguntzailea:** Rocío Vidal / **Banaketa:** Clara Pérez

www.lasharpiasenmadrid.es/

Iraupena: 90'

ANTZEZLEAK

Javier Collado, Montse Díez, Jesús Fuente, Alicia Garau, Jorge Gurpegui, Julio Hidalgo, José Ramón Iglesias, Alejandra Mayo, Sergio Moral, Raquel Nogueira, José Luis Patiño, Lucía Quintana eta Pablo Vázquez.

TALDE ARTISTIKOA

Zuzendaria: Tim Hoare - Rodrigo Arribas / **Egokitzapena:** José Padilla / **Eszenografiaren eta jantzien diseinua:** Andrew D. Edwards / **Argien diseinua:** Alberto Yagüe / **Musika konposizioa:** Xavier Diaz-Latorre / **Koreografia:** Tanja Skok / **Diseinuen koordinazioa eta karakterizazioa:** Susana Moreno / **Eszenografia eraikitzea:** Utilería-Atrezzo, S.L. / **Jantzien tailerra:** Rafael Solís / **Zuzendariondokoia:** Verónica Clausich / **Zuzendari-laguntzailea:** Grainne Dromgoole / **Eszenografia koordinazioko laguntzailea:** Anna Gil / **Zuzendaritza teknikoa:** Carlos Barahona / **Soinu espazioa:** Oscar Laviña / **Ekoizpen-laguntzailea:** Raquel Navarrete / **Ekoizpen-zuzendaritza:** Fundación Siglo de Oro

www.fundacionsiglodeoro.org

Iraupena: 130'

ABUZTUAK 6 LR. / LA CAVA / 22:30

Amodio-neke galduak (Love's Labour's Lost)
William Shakespearek lehen urteetan, 1595 aldera, idatzi zuen aurreneko komedietako bat da. Nafarroako erregearen eta haren hiru zaldunen istorioa kontatzen du. Hain zuzen, erabakiko dute erregearen gazteluan itxirik bizitzea erudizioan eta ikasten aritzeko, eta denbora horretan harremanik izan gabe emakumeekin.

Gaztelura Frantziako printzesa eta haren hiru dama iritsiko dira, ordea, eta zaldunen erabakia ahuldu egingo da: aurrez aurre izango dira sexua utzita egoteko botoak eta maitasunaren erakarpenak eramaten uzteko zina urratzeak dakarren sedukzioa.

William Shakespeare hil zeneko 400. urteurrenaren oroitzapena egiteko esparruan sortu du proiektu hau Fundación Siglo de Oro fundazioak, Shakespeare's Globe Theatrekin elkartuta, eta Teatros del Canal, Pentación Espectáculos eta Baluarte Fundazioarekin batera ekoitzita.

TRABAJOS DE AMOR PERDIDOS

William Shakespeare

Egokitzapena: José Padilla

FUNDACIÓN SIGLO DE ORO ETA
SHAKESPEARE'S GLOBE THEATRE

Zuzendaritza: Tim Hoare - Rodrigo Arribas



BE2TE KLA2IKO BATZUK

MUCH ADO ABOUT NOTHING

(TRUMOI ASKO ETA EURI GUTXI)

DAVID ESPINOSA / EL LOCAL E.C.

TALDE ARTISTIKOA

Sorkuntza, zuzendaritza eta antzezteak: David Espinosa / Lankidetzak zuzendaritzan: África Navarro / Espazio eszenikoa eta argiak: AiR eta David Espinosa / Musika eta soinua: Santos Martínez eta David Espinosa / Irudia eta bideoa: Diego Dorado eta David Espinosa / Ekoizpena: El Local E.C., Festival Clásicos en Alcalá, C.A.E.T. Terrassa, Kataluniako Generalitateko Kultura Sailaren laguntzarekin / Banaketa eta creative managera: M.O.M.-El Vivero

www.davidespinosa.org

Iraupena: 50'

Ez da gomendatzen 12 urtetik beherakoentzat.

UZTAILAK 23 LR. ETA 24 IG. / ERREGE JAUREGIA, ARKUEN ARETOA / 19:30 ETA 21:00

Zergatik jarraitzen da klasikoak muntatzen? Oihala zuri egoteak eragiten duen beldurrarengatik? Posible al da *Hamlet*, *Macbeth*, *Othello*, *Lear erregea*, *Romeo eta Julieta*, *Antonio eta Kleopatra*, *Ekaitza*, *Enrike V.a*, *Rikardo III.a*, *Nahi duzuen bezala* eta *Udagu bateko ametsa* ikuskizun bakar batean antzezteak? David Espinosa eta Local Espacio de Creacióneko haren jarraitzaileak saiatu egin dira, William Shakespearearen lan osoen bertsio apetazko, begi-engainagarri, artifizial eta hutsenean. Ikusteko antzezlan zoratu da, ikusgarritasunaren konbentzioez gogoeta egiten duena, abenturaz, maitasunaldiz, haragikeriaz, gerraz, tragediaz eta boterez betetako figuren eta objektuen bidez. Argi-ilunen joko ironikoa, zinemari, komikiari, arte plastikoei eta antzerkiaren beraren historiari keinu ugari egiten diena.



OYMYAKON

CÍA VIVISECCIONADOS

Dramaturgia eta zuzendaritza: José Andrés López

ENT-NAEk gomendatuta

UZTAILAK 27 AZ. / LA CAVA / 22:00

Oymyakon, planetan temperatura hotzena duen herri jendeztatua, zeropetik hirurogei gradu izatera heltzeraino.

Romeori, 17 urterekin, lehen aldiz eman diote ezezkoa, eta bakardadea bezalako toki hotz bat lortuko du. Era berean, toki horretan Mercucio dago, *horror vacui* (izua hutsari) sakon batek eragindako dibertsioaren bilaketa etengabea.

Romeo eta Julietaren istorioa baliatuko dut itsasoan galduta dagoen batek gauerdian sua pizten duen premia berberarekin; izan ere, bakardadean, tokirik hotzenean, aurkitzen baitut gatazketan handiena.

José Andrés López

ANTZEZLEAK

Sasha Slugina, Carlos Gorbe,
José Andrés López

TALDE ARTISTIKOA

Dramaturgia: José Andrés López
/ Zuzendari-laguntzailea: Carlos Gorbe
/ Espazio eszenikoa: Miguel Moreno
/ Jantziak: José Andrés López eta Miguel Moreno
/ Argiak, ikus-entzunezkoak eta argazkiak: Virginia Rota
/ Jatorrizko musika: Diego T. Carmen
/ Koreografia: Noa Yanski, José Andrés López

Iraupena: 60'

MACBETH

YA SOMOS EL OLVIDO QUE SEREMOS

W. Shakespeareren *Macbeth* oinarri hartuta

ALAUDA TEATRO

Zuzendaritza eta bertsioa: Rafael Benito

ENT-NAEk gomendatuta

ANTZETZLEAK

Rafael Benito, Estrella R.

Aktore-musikaria: Carlos Ghiringhelli / **Musikaria:** Isabel Sobrino

TALDE ARTISTIKOA

Argiak: Jairo Fuentes / **Jantziak:** Efi Vázquez / **Eszenografia:** T.A.T., Gabriel Benito eta Andrés Benito / **Txotxongiloak egitea:** Rafael Benito / **Musika konposizioa:** Isabel Sobrino eta Carlos Ghiringhelli / **Bideoa:** Dafne Cinema / **Argazkiak:** Andrés Benito eta Gabriel Benito / **Ekoi-zpena:** Alondra producciones s.l. / **Zuzendari-laguntzailea:** Isabel Sobrino / **Zuzendaritza eta bertsioa:** Rafael Benito

www.alaudateatro.com

Iraupena: 75'

ABUZTUAK 1 AL. / LA CAVA / 22:00

Testuan inplizitu zegoen premisa batetik abiatu zen sortze-proposamena; "gizona izatea" denaren misterioa: "Macbeth.- Gizon baten dinakoa den guztia egitera ausartzen naiz. Gehiagora ausartzen dena ez da". Horrenbestez, muga gainditzen duena zer bihurtzen da?

Alauda Teatro teknika aukera handi batean sartuko da: hari-txotxongiloak, bunrakua, miniatrak, txotxongiloak, eskularru-txotxongiloak eta maskarak, eta horren guztiaren burua gerraren eta boterearen makina da, elementu mugikariak dituen trepeta-instalazioa. Zuzeneko musikan, biolontxelorako konposizio eta konponbide intzidentalak nabarmentzen dira, elektronikoki modulaturatuta, perkusio klasikoa eta elektronikoa, eta tresna berritzaile baten erabilera, yaybahar izenekoa, muntatzearen lan kolektiboa sendotzen duena.



RESTOS / FEDRA

Raúl Hernández Garrido

TNT - CENTRO INTERNACIONAL DE INVESTIGACIÓN TEATRAL

Zuzendaritza eta egokitzaipena: Juana Casado

ENT-NAEk gomendatuta

ABUZTUAK 3 AZ. / LA CAVA / 22:00

Raúl Hernándezek idatzi zuen testua 1997an, eta lan horrek sari ugari jaso du, hala nola Calderón eta Lope de Vega sariak. Greziako tragediaren prozedura formalak hartzen ditu lanak eta berriro egiten ditu, eta era berean gaiak ondare mitologiko klasikora jotzen du. Hipolito eta Fedra erakargarritasun bereziko bi pertsonaia dira, ñabardura eta garaikidetasun aberatsekoak, Greziako tragedian ohikoa denetik harago. Abesbatza hari gidari bihurtuko da, eta, alde batetik, ekintzan esku hartzen duten beste pertsonaia pertsonifikatzen ditu, Hipolitoren gorabeherak lagunduta, eta, bestetik, Fedraren kasuan, haren ibilbidea berarekin bizi duen eta iruzkintzen duen ahots bat da, oraingo honetan intimoagoa. Azken ondorioetaraino doan borroka amorratua lan osoan nabarmendu beharreko balioa da, eta halakoa da desegiten doan gizarte batera berriro ekartzeko. Bertan eskubideak azpiak janda daude, krisiak aurrez aurre jartzen gaitu batzuk eta besteak, eta gure nahiak, gure ametsak, lortzeko ezintasuna sentitzen dugu.

ANTZETZLEAK

Marga Reyes, David Montero, Sarah Calvo, Ángela García, Beatriz Ortega, Aisa Pérez, Elisa Villalba

TALDE ARTISTIKOA

Dramaturgia: Raúl Hernández Garrido / **Zuzendaria:** Juana Casado / **Koreografia:** Juana Casado / **Eszenografia:** Dominique You / **Jantziak:** Carmen Granell / **Argien diseinua:** Dominique You / **Soinu espazioaren edizioa:** Emilio Morales / **Eszenografia gauzatzea:** Sergio Bellido / **Argazkiak:** Félix Vázquez / **Ekoizpena:** TNT, Centro Internacional de Investigación Teatral

www.atalaya-tnt.com

Iraupena: 90'

ANTZERKI **FAMILIARRA**
ETA KALEKOA

LOS CHISMES DE DON QUIJOTE Y SU AMIGOTE

TDIFERENCIA

UZTAILAK 22 OR. / ARMEN PATIOA.
ERREGE JAUREGIA / 20:00

Ancha Panza doktore ospetsuak makina sinestezin bat asmatu du denboran bidaiatzeko. Bere ametsa, txiki-txikitatik duena, xvii. mendera bidaiatzea izan da, Mantxako On Kixote kapare ospetsua ezagutzeko. Doktore dibertigarri honek, ordea, oroimen eskasa du eta kableak ongi konektatzea ahaztu zaio... Eskerrak zuek guztiak istorio hau ikusten ari zareten bidaiatzen lagundu ahal izateko, gainerakoan... Etorri barre egin eta bidaiatzera.

ANTZETZLEAK

Marian Ruiz eta César Sanchez

www.tdiferencia.com

Iraupena: 50'

Ikuskizun honetan
keinu-hizkuntzako interprete
bat ariko da.



NÁUFRAGOS

LA INDUSTRIAL TEATRERA

Zuzendaritza: **Jordi Purτί eta Mamen Olías**



CLOWNAK

Jordi Purτί eta Mamen Olías

TALDE ARTISTIKOA

Jantziak: Rosa Soler / **Argiak:**

Aleix Ramisa / **Eszenografia:** Jordà Ferrer (Antigua eta Barbuda).

www.industrialteatrera.com/es/espectaculos/naufragos/

Iraupena: 60'

UZTAILAK 22 OR. / KARLOS III.AREN PLAZA / 21:00

Bizitza lur-jotze txikiz betea baitago... Nora ezean bizi diren egunerokoaren bi naufragoren gaineko ikuskizuna, *clown* estiloan egindakoa. Iristen diren naufragoak, topatzen direnak, jolasten direnak, bila dabiltzanak... Konpartitzen dutenak... beste naufrago batzuekin. Mezuen arrantzaleak, botilen biltzaileak, uneen bildumazaleak. Naufragio bakoitza berriro hasteko aukera bat da, bidaiari jarraitzeko. Bizitzeko. Pertsonaia hauek eramaten utziko diete... haizeari, olatuei, bulkadei. Beren bizitzeko modua da, beren egunerokotasuna, ez dute ezer galtzeko, bai, ordea, dena irabazteko. Topaketa bat ikus-entzuleekin, trukea. Omenaldia inoiz naufrago sentitu diren bidaiari guztiei. Keinu bat eguneroko naufragioei, umoretik eta haus-kortasunetik. Kaleko antzerkiko eta *clowneko* ikuskizuna da, eta, halatan, zirkukoa. *Náufragos* lanak ez du testurik: keinuak, begiradek, irribareek hitz egiten dute.

DON QUIJOTE EN LA PATERA

Alfonso Zurro

TEATRO CLÁSICO DE SEVILLA

Zuzendaritza: **Antonio Campos**

UZTAILAK 24 IG. / LA CAVA / 21:30

Mantxako On Kixote paregabea, amets baten errealitatean harrapatuta, itsaso ozeanikoaren erdian esnatuko da. Bidegabekeriak zuzentzen dituen zaldun ibiltariak eta haren ezkutari leial Santxok arrain zoragarriak eta eskrupulurik gabeko munstroz beteriko itsas hondoetan abentura epikoa bizitzeko aukera emango digute. Freston magoarekin, etsai amorratuarekin, gudu desorekatuan borrokatuko da, eta erakutsiko digu hurrei zorientasuna ematea gizon-emakume bihoztunek has dezaketen abentura ederrena dela.

ANTZEZLEAK

Javier Berger, Juanfra Juárez,
Javier Centeno

TALDE ARTISTIKOA

Ekoizpena: Juan Motilla eta Noelia Díez / **Eszenografia diseinua:** Curt Allen Wilmer (AAPEE) / **Diseño de Argien diseinua:** Florencio Ortiz (AAI) / **Jantzien eta atrezzoaren diseinua:** Eva Moreno / **Musika:** Jasio Velasco / **Zuzendari-laguntzailea:** Pepa Delgado / **Jantzie-tarako eta atrezzoarako laguntzailea:** Laura Membrives / **Proiekzioak:** Fernando Brea / **Koreografia eta musika aholkularitza:** Isa Ramírez / **Borroketarako aholkularia:** Juan Motilla / **Eszenografia gauzatzea:** Mambo, TCS / **Jantziak egitea:** Rosalía Lago / **Makillajea eta ile-apainketa:** Manolo Cortés / **Diseinu grafikoa:** Manuel Cuervo / **Argazkiak:** Luis Castilla / **Talde teknikoa:** Tito Tenorio eta Fernando Brea / **Banaketa eta komunikazioa:** Noelia Díez

www.clasicodesevilla.com/Don-Quijote-en-la-patera.html

Iraupena: 60'



MICRO SHAKESPEARE

LAITRUM TEATRE, KOPRODUKZIOAN THE NATIONAL THEATRE REKIN

Bertsioa eta zuzendaritza: **Toti Toronell**

Jatorrizko ideia: **Laitrum / Angus MacKechnie**



ANTZEZLEAK

Aktoreak: Toti Toronell / **Aktoreak:** Jordi Borràs, Toti Toronell

TALDE ARTISTIKOA

Eszenografia: Quim Domene - La Fàbrica del Riu / Toti Toronell
/ Musika aukeraketa: Albert Dondarza / **Ekoizpen exekutiboa:** Laitrum / The National Theatre of Great Britain eta Laitrumen koprodukzioa

www.laitrum.com

Iraupena: 8'-ko emanaldiak

UZTAILAK 29 OR. ETA 30 LR. / TEOBALDOEN PLAZA / 18:00ETATIK 21:00ETARA

Eta ziur asko zeure buruari galdetuko diozu zer aurkituko duzun kutxen barnean. Bada, antzerkigile ingeles handiaren lanak... 8 minututan laburbilduta! Kutxa-antzokitxoaren atzealdean antzeztzen ari den ikus-entzuleak jarraibideak jasotzen ditu entzungailu batzuen bidez eta gauzakiak mugitzen ditu, jarraibideen arabera, zergatik egiten duen jakin gabe. Kutxa-antzokitxoaren beste aldean dauden ikus-entzuleak ikuskizuna ikusten ari dira, Shakespeareren lan batez gozatzen ari dira entzungailuen bidez. Istorioa gauzatzen da, forma hartzen du, "aktorearen" gauzakien mugimenduei esker. Shakespeare orain arte inoiz ikusi ez duzun moduan! Umorea, maitasuna, intriga, heriotza, mendekua, krispetak, aktore ez diren aktoreak, ikus-entzule emanak eta txaloaldi handiak. Micro-Shakespeare: azaltzen oso zaila den ikuskizun bat, baina egiten oso dibertigarria dena!

MUCHO RUIDO Y POCAS NUECES SOUND PARTY

ESENCIA PRODUCCIONES, LAGARTOLAGARTO
& TORNABÍS PRODUCCIONES

Egokitzapena eta zuzendaritza: Alfonso Palomares

ABUZTUAK 5 OR. / KARLOS III.AREN PLAZA / 21:00

Leonata andrearen etxean, urteko jaia koktel xalo batek hasi du, eta harrera arrakastatsu bihurtu da. Badirudi ezteietako dantza bihurtuko dela, baina mozorroen dantzaren ondoren triskantza hasiko da: *chill outa* hileta bilakatuko da. Lortuko al dute gonbidatzaileek festa berarrantolatzea? Eta are garrantzitsuagoa dena, jaia galtzeko gai izango zara?

Ikus-entzuleak zorionekoak dira: klase handiko eta zabaltasun handiko gonien bankete honetan luxuzko gonbidatuak dira. Leonataren familiak esertzeko aukera, ongietorria egiteko *classy snackak* eta dantzaldirako gonbidapen bat emango dizue. DJ bihurri bat dugu, manboaren arrakasta handiak eta jatorrizko musika zuzenean!

ANTZEZLEAK

Pilar Barrio, Amparo Nogués, elena G. Zazurca, Kike Lera, Alfonso Palomares, Manuel López, Macarena Buera

TALDE ARTISTIKOA

Jatorrizko musika konposizioa: Kike Lera / **Koreografiak:** Macarena Buera / **Jantziak:** Marta Jiménez Salcedo / **Eszenografia:** Nacho Gómez eta Alfonso Palomares / **Diseinu grafikoak:** Agustín Pardo / **Soinu espazioa:** Manuel Escosa / **Bideoa:** Jorge Claver / **Argazkiak:** Beatriz Piarch, Mario Pérez Arias

www.esenciaproducciones.com

Iraupena: 75'



DON QUIJOTE

TEATRO DEL FINIKITO

Egokitzapena: Carlo Boso, David Sanz eta Eva del Campo

Zuzendaritza: Carlo Boso



ANTZEZLEAK

David Sanz, Jaime Arranz, Ana Siller, Eva del Campo, Crithian Esquivel, Javier Laorden

TALDE ARTISTIKOA

Musika (zuzenean): T.L. de Victoria, Haendel, músicas tradicionales españolas y balcánicas,... / **Ahots**

teknika: Gábor Soriano / **Dantza:**

María José Ruiz / **Pantomima:** Pawel Rouba / **Borrokak:** Gemma

Bertrán / **Esenografia eta maskarak:** Stefano Perocco /

Argazkiak: Julián Rojas

Ekoizpena: El Teatro del Finikito.

/ **Hauen laguntzarekin:** Alcalá de Henaresko Udala, Madrilgo Erkidegoko Arte Kontseilaritza, Hezkuntza eta Kultura Ministerioa

www.elteatrodelfinikito.com

Iraupena: 90'

ABUZTUAK 6 IG. / KARLOS III.AREN PLAZA / 20:00

Komikoen talde ibiltari batek Cerventesen epopeiako pasarte enblematikoenak antzeztea erabaki du: liburuak erretzea, haize errotak, Camachoren ezteiak, Santxo manta-jolasean erabiltzea, buru hiltzuna, Clavileño, eta abar. Eta hori guztia, *Commedia dell'Arteren* teknikak erabilita: abestiak, dantzak, pantomimak, akrobaziak, borrokak, ilusiosimoa, antzerki kolpeak... Ikuskizun honetan, tragikoa komikoan lehertzen da, komikoa patetikokoan, patetikoa dramatikoan, dramatikoa erromantikokoan... *Don Quijote* lanarekin, El Teatro del Finikito taldeak *Commedia dell'Arteren* antzinako lurralde aberatsa garai modernoetan esploratzen duten antzezleen nortasuna sendotzen du eta Cervantes jainua omentzen, unibertsala gure egun hauetan, Carlo Boso konplize leialak albotik babesten duela. Hartara, Espainiako talde bat eta zuzendari italiar bat martxan jarri dira On Kixote bat commediaren artearekin eszenaratzeko.

MIKROKLASIKOAK

Erriberriko Antzerki Klasikoko Jaialdiak irmo eusten dio Nafarroako antzerkigintzari laguntzeko apustuari. Aurtengo edizio honetan, sei talde profesional ariko dira, eta, Mikroklasikoen zikloaren barnean, **gehienez ere 15 minutuko iraupena izango duten lanak aurkeztuko dituzte agertokian**. Hautatutako lan guztiak jatorrizko testuetan oinarrituta daude eta adin guztietako ikus-entzuleentzat dira. Haien artean gertakizun zentzugabeak, antzerki klasikoko pertsonaiak, adibidez, Medea, Ofelia eta Zelestina, eta idazleak aurkituko ditugu, hala nola Calderón, Cervantes eta Shakespeare.



OFF ELIA. LA CLÁSICA COMEDIA

TDIFERENCIA

Egileak: **Maite Redín** eta **Adriana Olmedo**

Komedian aditu diren hiru aktorek antzezaritza klasikoko emakumezko pertsonaia garrantzitsuenetako lau hezurmamituko dituzte: Medea, Zelestina, Ines andrea eta Ofelia. Xirmixarmaz garaikideak izango dira laurak eta lagun minak. Beren bizipenak eta emozioak ikus-entzuleekin konpartituko dituzte, eta ikus-entzuleek laurak hobeki ezagutzeko modua izango dute eta, batik bat, izugarri dibertitzekoa. Musika onek eta Tdiferenciaren estiloari eta ezaugarriei dagozkien keinuek lagunduta, proposamen honetan lau tragediak komedia huts bihurtuko dira.

ANTZEZLEAK

Maite Redín, Adriana Olmedo, Nerea Bonito

www.tdiferencia.com



WWW.PRINCIPE.VIRTUAL

LA NAVE PRODUCCIONES

Egilea eta zuzendaria: **Miguel Munárriz**

Laborategiko bi teknikari heldu agertokian azalduko dira. Mantal zuriak, txano zuriak, galtzerdi-oinetako zuriak. Atsedean hartzen ari dira, hau da, kafea. Berehala jakingo dugu kafea baliatzen dutela ezkutuko proiektu batean aurrera egiteko. Vianako printzearen gortearen higienezari eta sexualitateari dagozkion erabilerei eta ohiturei buruzko proiektu birtuala. Ekintzak gertatzen dira bai iruzkin bai egoera harrigarri eta barre-egingarrien artean. Hartara, bidea ematen diete ikus-entzuleei gorte hartan irudimenezko ibilbidea egiteko, haien erabilera eta ohituretan, zenbaitetan sinestezinak eta beti dibertigarriak, amaiera harrigarri eta dibertigarri batera iritsi arte.

ANTZEZLEAK

Miguel Munárriz eta Marta Juániz

www.lanaveteatro.net/



PLANTO DEL SOLDADO 1º

BUTACA 78

Egilea eta zuzendaria: **Víctor Iriarte**

Bigarren espetxerazetik Segismundo printzea askatu duen, Basilio erregea erorarazi duen eta Poloniako tronua eman dion iraultzaren burua izan da soldaduburua. Baina errege berriak –bihotz-zabala, apalarazi zutenekin– bizi bitarteko espetxera zigortuta ordainduko dio, erresumari armak harrarazteagatik. Calderón asko arduratzen da ordena berrezartzeaz *La vida es sueño* lanean. Hortaz, pertsonaia hau leotzean irudikatuko dugu –egileak ez zion ezta izen bat izateko duintasuna eman–, bakarrik bere kontzientziarekin, gertatutakoa eta boterearen mekanismoek nola funtzionatzen duten ulertzen saiatzen. Orduan eta orain.

ANTZEZLEAK

Laura Laiglesia eta Sergio Albillo

TALDE ARTISTIKOAK

Eszenaratzea eta ekoizpena: Escuela de Actores Butaca 78

www.butaca78.com/

MIKROKLASIKOAK

OFF ELIA. LA CLÁSICA COMEDIA

WWW.PRÍNCIPE.VIRTUAL

PLANTO DEL SOLDADO 1º

ERREGE JAUREGIA:

UZTAILAK 25 / 20:00

UZTAILAK 29 / 20:00

UZTAILAK 30 / 13:00

ABUZTUAK 6 / 20:00



MIKROKLASIKOAK

JUICIO AL MERCADER
NO ES TAN FEQ... VISTO DE CERCA
RINCONETE Y CORTADILLA

ERREGE JAUREGIA:

UZTAILAK 30 / 20:00

UZTAILAK 31 / 13:00

ABUZTUAK 5 / 20:00

ABUZTUAK 6 / 13:00

JUICIO AL MERCADER

HOIDEK PRODUCCIONES

Zuzendaritza: **Susana Gutiérrez González**
eta **Vidal Ruiz**

Egun arrunt bat Erriberriko azokan. Salerosleak askotariko salgaiak eskaintzen ari dira bezeriari. Han, mezatik atera berriak diren damak, enkar-guak egitera joan diren neskameak, aukeraren bila dabiltzan saltsa-miatzaileak, eta denbora ahalik eta modurik onenean igarotzeko asmoa duten kapareak nahasten dira. Ohikoa den zalapartaren erdian, gogortzen ari den eztabaida bat nagusituko da: merkatari diruzale bat, berri-jario saltsa-miatzaile bat, eta baten eta bestearen negozioen tartean dagoen dama bat. Agintariak bitarteko izan beharko du, eta, beti bezala, ez dira denak konforme geldituko. Bien bitartean rondalla baten musika giro beroa baretzen saiatuko da.

ANTZEZLEAK

Eva Azpilicueta, Susana Gutiérrez, Ion Martikorena,
Vidal Ruiz

TALDE ARTISTIKOA

Musika: Los Amigos del Arte / **Musika zuzendaritza:** Asier Zabalza / **Musikoak:** Itziar Ara, Susana Gurucharri, Ana Hernández, Josetxo Lete, Marijose Zaratiegui / **Testua:** Carlos Sotelo Enríquez / **Eszenografia eta baliabide teknikoak:** Hoidek Producciones

<https://hoidek.es/>



NO ES TAN FEO... VISTO DE CERCA RINCONETE Y CORTADILLA

PRODUCCIONES MAESTRAS

Zuzendaritza: **Ana Maestrojuan Guindano**

Dramaturgia: **Ángel García Moneo**

Nobleen arteko bi pertsonaiaren arteko lehen topaketa, biak "ezkontzea hitzartu" baitute. Emakumea Katalina Bordon andrea da, gizona, Eduardo Foie jauna, biak ala biak adinean sartuak eta betebeharrak bete gabe dituztenak. Biek amets dute maitasuna, beren bizitzak konpartitu nahi dituzte, baina emakume moduan aseko duen gizon baten bila dabil Katalina, emakumeek gutxi axola duten eta beren iritziak deus ere balio ez duen garai batean...; eta Eduardo ere... ezinezkoa den maitasun baten bila dabil. Komedia dibertigarri honetan, nahiz eta duela mende batzuk gertatu, Katalinak eta Eduardok biezkat on den konponbide bat aurkitu beharko dute, azken batean... "Bizitza ergel batek kontatutako ipuina bezalakoa da; erretolikaz eta eroaldiz betetako ipuina, inolako zentzurik gabea". *William Shakespeare*

ANTZEZLEAK

Iratxe García Uriz, Ana Maestrojuan Guindano, Ángel García Moneo

www.produccionesmaestras.com/

ATIKUS TEATRO

Gidoia eta zuzendaritza: **Angel Sagüés**

Ekoizipena: **Asun Abad**

(Urrezko Mende argiduneko Cervantina ereduako eleberrian oinarritua. Erriberriko antzerki klasikoko jaialdirako joko eszeniko bihurtua. Hogeita batgarren mende kritiko eta susmatugabe honetako bi mila eta hamaseigarren urte honetan). Begirada garaikidea Cervantesen bi pertsonaia hauei. Bi nerabe baztertu, elkar ezagutu, elkar hartu. eta iruzur eta ustelkeria mundu batean bere burua azalduko dutenak. Bizitza bera bezain egiazkoa, protagonistek emigratzea beste irtenbiderik ez dute izango. Eszenaratze original eta iradokitzailea da, eta bertan, ikus-entzuleak espazio eszenikoan bertan sartuta gelditu daitezke, dekorazioko elementuak balira bezala.

ANTZEZLEAK

Jon Muñoz, Ane Sagüés

<http://www.atikus.es/>

THE COMPLETE WALK



**SHAKESPEARE
LIVES IN
2016**



UZTAILAK 22 OR. / TEOBALDOEN PLAZA / 19:00ETATIK 00:00ETARA

William Shakespeare antzerkigile unibertsala 1616an hil zen eta 37 antzezlan utzi zituen idatzita. Lau mende geroago, Shakespeare's Globe Theatre erakundeak *The Complete Walk* proiektua antolatu du urteurren honen oroitzapena egiteko. Hain zuzen, egile izugarri on horren irudimenean, bizitzan eta ondarean egindako ibilbidea da, bere lan guztiak egokitu dituzten 37 film laburren bidez.

Film hauen berezitasuna da idazle ingelesak asmatu zituen kontakizunak igarotzen diren toki berberetan filmatu direla. Hartara, *Antonio eta Kleopatra* Egiptoko piramideen ondoan filmatu da, *Hamlet* Elsinorren eta *Love's Labours Lost* (*Amodio-neke galduak*) egokitzen duen film laburra Erriberriko Errege Jauregian filmatu da, Navarra Film Commissionen lankidetzarekin.

Film horiek 2016ko apirilaren 22an estreinatu zituzten, Liburuaren Eguna ospatzeko ekitaldien barnean, Londresko Tamesis ibaiaren ertzean. Eta aldi berean Madrilen eta Bartzelonan. Estatuan egingo duen hurrengo eskala Erriberriko Antzerki Klasikoko Jaialdia izango da, eta han hainbat saiotan programatuko da.

www.shakespearelives.org

Informazio gehiago: culturavarra.es

BESTE JARDUERA BATZUK



DEPORTEATRO

INTERPRETAZIO TAILER INTEGRALA

Yayo Cáceresekin (Ron Lalá)

**UZTAILAK 23 LR. ETA 24 IG. / ERIBERRIKO
IKASTETXE PUBLIKOA / 10:00ETATIK 14:00ETARA ETA
16:00ETATIK 18:00ETARA**

Yayo Cáceres Ron Lalá antzerki, umore eta musika taldearen zuzendariak *Deporteatro* tailerra gidatuko du. Zehazki, aktore lanaren hastapenak azaltzeko tailerra da, antzezle, musikari eta antzerkigileentzat, profesional edo amateur izan. Ikuspegi multidisziplinario batetik egingo du, barnean hartuta erritmoa, musika, bat-batean aritzea eta kirola, antzezteko lanean.

TAILERREKO IRAKASLEA

Yayo Cáceres (Curuzú Cuatiá, Corrientes, Argentina, 1965) Ron Lalá antzerki, umore eta musika taldeko zuzendaria da. Roberto Stábile, Ernesto Retamero, Hugo Midón eta Alejandra Boerorekin hartu zuen pres-takuntza eta Manuel de Falla kontserbatorioan ikasi zuen (Teatro San Martín, Buenos Aires). Javix Bakmanen *Holly is good* eta Daniel Veroneseren *Equívoca fuga* zuzendu ditu; *Ojos de agua*; eta *La Celestinaren* bertsio bat Charo Lópezekin. Aktore lanetan, Imprebis taldeko kidea izan da. Argentinan, Mabel Manzotti eta Virginia Lagorekin egin du lan. Musikari lanetan, lau album argitaratu ditu bakarka eta musika ondu, egokitu, jo eta zuzendu du Yllana eta L'Om-Imprebis taldeen ikuski-zunetarako. Bere ibilbidean 15 sari baino gehiago jaso ditu eta antzezlaritzarekin lotutako eskolak eman ditu heziketako ikastetxe ugarian.

HARTZAILEAK

Aktore profesionalak edo amateurrek / Musikari profesionalak edo amateurrek / Idazle eta antzerkigile profesionalak edo amateurrek.

ARGIBIDEAK

Prezioa: 40 € / Jarleku kopurua: 16 leku

EGOITZA-LABORATEGIA

UZTAILAREN 22TIK ABUZTUAREN 6RA / ERRIBERIKO IKASTETXE PUBLIKOA /

Erriberriko Antzerki Klasikoko Jaialdiak, lehen aldiz, lan-egoitza bat eskaintzen dio Nafarroako antzerki talde bati, arte-proiektu bat garatzeko, ikerketa-laborategi moduan planteatuta.

Hautatutako taldea In Extremis Teatro da, eta Shakespeareren *Medida por Medida* lana landuko du (Measure for Measure). José Padilla-ren zuzendaritzapean, Txori García Uriz, Leire Ruiz, Oier Zuñiga, Iratxe García Uriz eta Juan Sansegundok eratuko dute antzezleri taldea.

Interesa zuten taldeek antzertiaren esparruan sortzearen gaineko proiektuak aurkeztu behar zituzten: ekoizpena, aktoreekin lan egitea, antzerkiko teknika berriak hartzea, teknologia berriak... In Extremis Teatro taldeko kideek proiektua edizio honetan garatuko dute, uztailaren 22a eta abuztuaren 6a artean. Lan egiteko tokia Erriberriko ikastetxe publikoko erabilera anitzeko gela izango da.

Foru Komunitateko sektore profesionalari babilera emateko ekimen honen bidez, Jaialdiaren asmoa da erakustearen esparrua gaitzetea sorkuntza eta ikerketa ere bultzatzeko, eta, hartara, jardun eszenikoaren inguruko begirada berriak jorratzea sustatzeko.

